

LEGAZPI / Ipuin kontaketa

Udal liburutegiak 3 eta 5 urte bitarteko haurrei zuzenduriko ipuin kontaketa eskainiko du gaur. Hitzordua arratsaldeko 18:00etan izango da, Ines Bengoa kontalariarekin. Ekimena bihar izango den Haur eta Gaztetxoen Liburuaren Egunaren harira antolatu da. Honekin batera, liburutegiak ekintza ugari prestatu ditu apirilaren 23an ospatuko den Liburu Egunarekin bat egiteko. Datorren ostegunerako Toti Martinez de Lezearekin solasaldia antolatu du, 18:00etan, kultur etxean, herritar guztiei zabaldutako saioan (gazteleraz). Apirilaren 11an berriz, 5 urteko haurren bisita gidatuak egongo dira liburutegian eta 13an lurre Ugarte idazlearen eta batxilergoko ikasleen topaketa egingo da. Honekin batera, liburu zaharren azoka jarri da martxan. Hau liburutegiaren sarreran aurkitzen da (ezkerraldean) eta bazkide bakoitzak bertako bi liburu eskuratu ahal izango ditu dohain.